

Eskola Kontseiluetan nola parte hartu

Eskola Kontseiluetan parte hartzen duten
gurasoentzako gida praktikoa





BAIKARA

Baso Txiki, 36 atzealdea - 20015 DONOSTIA
Tel: 943 32 72 08 - Fax: 943 27 49 77
E: baikara@ehige.org - W: www.baikara.org



BIGE

Ronda, 27 1. ezk. - 48005 BILBO
Tel: 94 416 93 60 - Fax: 94 416 66 48
E: bige@ehige.org - W: www.bige.org



DENON ESKOLA


Florida kalea, 62 A - 01005 VITORIA-GASTEIZ
Tel: 945 25 61 62 - Fax: 945 25 76 80
E: denon@ehige.org - W: www.denoneskola.org



ESKOLA TXIKIAK

Altzoko Udaletxea - Altzo Muño 73 - 20268 ALTZO
Tel: 635 739 146
E: gurasoak@eskolatxikiak.org • irakasleak@eskolatxikiak.org
W: www.eskolatxikiak.org

EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASO ELKARTEA
Ronda, 27 - 1. ezk. Tfnoa. 94 416 93 60 - Fax. 94 416 66 48
email: ehige@ehige.org www.ehige.org




Gida honen edizio berriarekin EHIGE- Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartearen Konfederazioaren elkarte sarea osatzen duten federazioetan elkartutako 450 inguru ikastetxeetako Eskola Kontseiluetan familiak ordezkatzuz parte hartzen duten aita eta amei informazio erabilgarria eskaini nahi diegu.

Eskola Kontseiluetan aita eta amen parte hartzea erraztea EHIGERen helburu nagusietako bat da. Gida honen edizioak erronka horretan laguntza eskaini nahi du. Horregatik prestatu da publikazio hau haien ikastetxean heziketa eta funtzionamendua hobetzeko eskola kontseiluan parte hartu nahi duten gurasoentzako interesgarriak diren zenbait gako batu eta laburbilduz.

Gida hau dokumentu labur eta erraza da, Eskola Kontseiluetako kide izatearen erantzukizuna betetzen duten pertsona guztientzat ohiko zalantzak argitzeko lantresna praktikoa hain zuzen ere. Azken finean, familiek hezkuntzaren esparruan garatzen duten zeregin garrantzitsuan laguntza eskaintzea baino ez da helburua.

Ziurrenez Eskola Kontseiluaren gestioarekin loturiko zenbait aspektuk leku eta azalpen gehiago eskatzen zuten. Horregatik, informazio gehiago behar izanez gero jar zaitezte kontaktuan zalantzarik gabe zuen Federazioarekin.

Ana Puente
EHIGEko Presidentea



Eskola Kontseiluetan nola parte hartu
Eskola Kontseiluetan parte hartzen duten gurasoentzako gida praktikoa

Argitaraldia: 3.a, 2011eko urtarrila (berritua).

Ale kopurua: 5.000

©: EHIGE Gurasoen Elkarte

Argitaratzailea: EHIGE Gurasoen Elkarte

Internet: www.ehige.org

Egilea: EHIGE Gurasoen Elkarte

Maketazioa eta inprimaketa: Grafinozte, S.A.

Lege-gordailua: BI-1774-07

Aurkibidea

| | |
|--|----|
| ➤ Zer da OOG, Ordezkaritza Organo Gorena, edo Eskola Kontseilua? | 6 |
| ➤ Nortzuk osatzen dute? | 6 |
| ➤ Zeintzuk dira OOG, Ordezkaritza Organo Gorena, edo Eskola Kontseiluaren konpetentziak? | 7 |
| ➤ Zeintzuk dira ohiko batzordeak? Zeintzuk dira haien funtzioak? | 8 |
| ➤ OOG, Ordezkaritza Organo Gorena, edo Eskola Kontseiluaren funtzionamendua. Noiz batzen da? | 10 |
| ➤ Nola egiten dira bozketak? | 11 |
| ➤ OOG, Ordezkaritza Organo Gorena, edo Eskola Kontseiluaren aktak. Nola idazten dira? | 11 |
| ➤ Zenbat irauten du agintaldiak? | 12 |
| ➤ Guraso Elkartea Eskola Kontseiluan | 12 |
| ➤ Laburbilduz... | 13 |
| ➤ Legeria | 14 |
| ➤ I. ERANSKINA: Hainbat erantzun ohiko zalantzetarako | 16 |
| ➤ II. ERANSKINA: Ohiko terminoen glosategia | 18 |

Zer da OOG, Ordezkaritza Organo Gorena, edo Eskola Kontseilua?

Eskola elkarteak osatzen duten sektore ezberdinen ordezkaritza eta parte hartzerako organo gorena da. Espazio honetan familiek, irakasleek eta ikasleek parte hartzen dute eta euskal sare publikoko edozein ikastetxetan eragina duten erabakiak hartzen dituzte.

Eskola Kontseilua eratzea DERRIGORREZKOA da diru publikoarekin sostengatzen diren ikastetxe guztietan.

Nortzuk osatzen dute?

Eskola Kontseiluan eskola elkarteak osatzen duten kolektibo guztiak azaltzen dira ordezkatuak. Beren kideak irakasle klustroak, ikasleria, guraso zein tutoreen kolektiboko taldekoak izan daitezke eta pertsona bakarreko organoetakoak (zuzendaria, ikasketa burua, idazkaria)

OOG - Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseilua, gutxienez, ondokoek osatuko dute:

- Zuzendariak, haren presidente edo burua izanik
- Ikasketa buruak
- Klustroak aukeratutako irakasle kopuru jakin batek. Kopuru horrek ezin izango du izan OOG - Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseilua osatzen dutenen kopuru osoaren heren bat baino gutxiago.
- Familiek aukeratutako aita eta ama kopuru jakin batek*. Ikasleen Guraso Elkarteak Eskola Kontseiluko ordezkaritza bat aukeratzeko eskubidea dauka, hauteskunde prozesuan parte hartu gabe.
- Ikasleek aukeratutako ikasle kopuru jakin batek (bigarren hezkuntza ematen duten ikastetxeetan soilik)
- Udalaren ordezkaritza batek.
- Irakaskuntzaz kanpoko langileria ordezkatuko duen pertsona batek.
- Ikastetxeko idazkariak, OOG - Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseiluan ere idazkaria izango dena, hitzarekin baina botorik gabe.
- Hezkuntza-arreta osagarria emateko pertsonalaren ordezkaritza bat.

Ikastetxe bakoitzeko Antolaketa eta Jarduera Araudia – AJA-k zehaztuko du Eskola Kontseilua osatzen duten pertsonen kopuru osoa guraso, ikasle eta irakasleen ordezkaritza portzentajeak errespetatuz.

Ikastetxean ematen den hezkuntza-etaparen arabera aldatzen da gurasoen parte-hartzea eskola kontseiluan.

— Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak: familiek aukeratutako gurasoen portzentaia eskola kontseilua osoaren %50a izango da. Etapa honetan ikasleek ez dute ordezkapenik.

- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak: etapa honetatik aurrera ikasleek ordezkapena daukate eskola kontseiluan eta gurasoen portzentaia jeitsi egiten da ikasleena igotzen den heinean. Bien batuketak eskola kontseiluaren partaideen %50 egingo du.
- Ikastetxe motak begiratu Legeria izeneko atalean. 228/2010 dekretua, irailaren 7koa (EHAA 2010-09-27)

Zeintzuk dira OOG, Ordezkaritza Organo Gorena, edo Eskola Kontseiluaren konpetentziak?

Ikastetxe bakoitzeko OOG - Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseiluak ondoko eskumenak izango ditu:

- Ikastetxeko Heziketa Proiektua (IHP) –Curriculum eta hizkuntza Proiektuak barne hartzen dituelarik–, Antolaketa eta Jarduera Araudia (AJA) eta gestio ekonomikorako proiektua onartu
- Ikastetxearen urteko plana onartu
- Ikastetxearen urteko memoria onartu
- Ikastetxearen urteko Bizikidetzeta Plana onartu
- Bizikidetzeta gatazken konponbidea ezagutu, eta bere ezarpena eta erreklamazioak berrikusi
- Testuliburuaren kudeaketa solidarioa egiteko programaren antolaketarako eta funtzionamendurako ildoak onetsi
- Eskolaz kanpoko ekintza eta ekintza osagarriarako Plana onartu
- Irakasleen formazio eta birziklatze ekintza programa onartu
- Ikastetxean ikasleen onarpenaren inguruan erabakiak hartu
- Kultur eta heziketa helburuak izanik beste ikastetxeekin elkarlanerako harremanak ezarri
- Eskolako instalazio eta ekipoen berrikuntza sustatu
- Administrazio zein irakaskuntza arloetan ikastetxeko ekintzak orokorrean kudeatu
- Ikastetxearen ordutegi eta egutegia onartu
- Zuzendariaren aukeraketa batzordean parte hartu
- Diziplina gatazken ebazpena ezagutu



Funtzio hauek burutu ahal izateko Eskola Kontseiluak hainbat batzorde era dezake.

■ Zeintzuk dira ohiko batzordeak? Zeintzuk dira haien funtzioak?

Ikastetxearen funtzionamendua egokia izan dadin nahi bezain beste batzorde era daitezke.

Eskola Kontseiluan berretsi beharko dira batzordeetan hartutako erabaki guztiak. Gainera, parte-hartzaileek zein batzordeek egindako zereginiei buruzko informazio zehatza eskatu ahal izango du Eskola Kontseiluak.

Estamentu bakoitzak Eskola Kontseiluan daukan ordezkaritza kontuan hartu beharko da batzordeetan egiten diren bozketetan (Boto haztatuari dagokion galdera begiratu I. Eranskinean).

Hauek dira batzorde eta funtzio ohikoenak:

1. Batzorde iraunkorra
2. Ekonomia batzordea
3. Elkarbizitza batzordea
4. Testuliburuaren batzordea
5. Jantoki batzordea
6. Hizkuntz batzordea
7. Eskola Kirol batzordea
8. Segurtasun eta higiene batzordea

Batzorde Iraunkorra

Hauek osatuko dute: zuzendariak, ikasketa buruak, irakasle kopuru jakin batek, guraso kopuru jakin batek, ikasle kopuru jakin batek (bigarren hezkuntzako kasuan) eta idazkariak hitzarekin baina botorik gabe.

Haren eskumenen artean honako hauek ditugu: Eskola Kontseiluaren bileratarako gai zerrندا proposatzea, ikasleak onartzeko arauak prestatzea, barne erregimenaren araudia prestatzea, ...

Ekonomi Batzordea

Hauek osatuko dute: Zuzendariak, idazkariak (hitzarekin baina botorik gabe), ikasketa buruak, irakasle kopuru jakin batek, guraso kopuru jakin batek, eta azkenik Udaleko ordezkariek.

Bere eskumenen artean ikastetxearen urteko balantzea prestatu eta kudeatzea daude.

Elkarbizitza batzordea

Zuzendariak, ikasketa buruak, eta sektore bakoitzak aukeratutako irakasle batek, guraso edo tutore batek eta ikasle batek (bigarren hezkuntzan) osatuko dute. Gehien-goaren arabera hartuko dira erabakiak, boto haztatuaren sistema erabiliz.

Batzorde hori eskolako elkarbizitzaz arduratuko da, hau da, elkarbizitza hobetzeko proposamenak egingo ditu eta gerta daitezkeen arazoei aurrea hartuko die. Horretaz gain, hutsegite larriak ere aztertuko ditu, zigorrak jartzeko eskumena izango duelarik.

Testuliburuaren batzordea

OOG edo Eskola Kontseiluko Presidenteak, Ikastetxeko idazkariak eta Guraso Elkarrearen bi ordezkariak osatuko dute, OOGak aukeratutakoa bata eta IGE eta Lehen Hezkuntzako koordinatzaileak aukeratutakoa bestea eta Bigarren Hezkuntzako koordinatzaileak aukeratutakoa bestea.

Bere eskumenen artean hauek daude: eresketa puntu eta prozedurak proposatzea, zerrendak ikuskatzea eta araudiaren betetzea kontrolatzea...

Jantoki batzordea

Haren eskumenen artean besteak beste honako hauek leudeke: jantokiaren aurrekontua prestatzea, administrazioko arduradunarekin elkarlanean aritzea, Eskola Kontseiluari menuak proposatzea,...

Hizkuntz batzordea

Ikastetxearen hizkuntza proiektua aztertu eta babestu. Haren eskumenen artean ikastetxeko ekintza guztietan, baita familiaren esparruan ere, euskararen erabilera sustatzea egongo da. Denok batera euskararen bidez elkarrekin bizitzen ikasi beste hizkuntza guztiak errespetatuz, hizkuntz ezberdinenenganako eta haien kultur aberastasunetikiko jarrera positiboak garatuz,...

Eskola Kirol batzordea

Bere eskumenen artean ikasturtean eskolaz kanpo egongo den kirol eskaintza prestatzea, parte hartze irizpideak zehaztea eta udaleko edo eskualdeko eskola kirolaren arduradunekin koordinatzea egongo dira.

Segurtasun eta higiene batzordea

Haren eskumenen artean Eskola Kontseiluari ikastetxeko azpiegitura, altzari eta instalazioetan aurkitzen den edozein anomalia jakinaraztea dago.

■ OOG, Ordezkaritza Organo Gorena, edo Eskola Kontseiluaren funtzionamendua: Noiz batzen da?

Eskola Kontseilua ohiko bilkuran edo ez ohiko bilkura elkartu daiteke.

Bilkuratan parte hartzea derrigorrezkoa da osatzen duten pertsonentzat.

► Ohiko bilkura.

Ohiko bilkuran ikasturtean birritan gutxienez elkartuko da derrigorrez.

Halere, ikastetxean hartu beharreko hainbat erabakik Eskola Kontseiluaren akordioa eskatzen dutela kontuan hartuz eskolaldiko hiruhileko bakoitzean behin elkartu beharko litzateke.

Deialdia zuzendariak egingo du, edota kideen heren batek eskatuta; edozein modutan ere OOG - Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseiluko kide guztiei deialdia luzatzeko eskumena ikastetxeko zuzendariarena da.

Osatzen duten kide guztien parte hartzea erraztuko duen egun eta ordutegian burutuko dira.



Era berean, eta aste bateko aurrerapenarekin, zuzendariak Eskola Kontseiluko kideei bilerarako gai zerrenda eta eztabaidatzeko beharrezkoa izango den dokumentazioa bidaliko dizkie, eta kasua balitz, gai zerrendan sartutako gaien onarpena. Prozedura alde batera uzteak akordioen aurka egitea eragin dezake eta beraz baliorik gabe gelditzea.

► Ez ohiko bilkura.

Eskola Kontseilua ez ohiko bilkuran elkartuko da premiazko gai bat dagoenean. Kasu honetan aipatutako premia eragin duten gai edo gaiak soilik txertatuko dira gai zerrendan.

Ez ohiko bilera hauek Eskola Kontseilua osatzen duten kideen heren batek eskatuta dei daitezke edota Batzorde Iraunkorraren aginduz.

Deialdia ikastetxeko zuzendariak egingo du gutxienik 48 orduko aurrerapenarekin, beti ere kide guztiek haren berri izatea eta asistentzia bermatuz.

Nola egiten dira bozketak?



Eskola Kontseiluak gehiengo soilen bidez hartuko ditu akordioak. Bozketa egiteko unean **bertan dauden** OOG - Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseilua osatzen dutenen erdia gehi bat, gutxienez, hain zuzen ere.

Zenbait kasutan hainbat gai gehiengo osoz onartu behar dira. OOG - Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseilua **osatzten duten guztien** erdia gehi bat, gutxienez, hain zuzen ere.

Berdinketa ematekotan zuzendariaren botoak erabakitzen du.

Azpimarratu behar da ikastetxeko Heziketa-proiektua edota AJA - Antolaketa eta Jarduera Araudia onartzeko garaian proposamenak Eskola Kontseilua osatzen duten kide guztien bi hereneko gehiengoaz onartu behar dira. Ikastetxeko egutegiaren kasuan, gehiengoz onartuko da, aldaketa nabarmenak ez dauden bitartean. Ordutegia aldatu ahal izateko, irakasle, ikastetxeko gainerako langile eta familia guztien %80ak onartu behar du (idatziz kontsultatu behar dira ikastetxeko familia guztiak).

Gai zerrendan azaltzen diren gaien gainean soilik eztabaidatu edo akordioak har daitezke. Halere, Eskola Kontseiluak gehiengo osoz gairen bat premiazkoa dela erabakiko balu, gai horren inguruko akordioak hartu ahal izango ditu. Halere inondik inora ez da erabakirik hartuko galde-eskeak puntuan.

OOG, Ordezkaritza Organo Gorena, edo Eskola Kontseiluaren aktak. Nola idazten dira?

Bilkura bakoitzeko akta jasotzearen ardura Eskola Kontseiluko idazkariarena izango da.

Aipatutako akta horretan bilerara etorritako zerrenda azalduko da, izen abizenak eta Eskola Kontseiluan betetzen duten kargua adieraziz, eta horrekin batera bilera ospatu deneko lekua eta eguna (eguna, hilabetea, urtea eta ordua).

Era berean aktan eztabaida gai nagusiak azalduko dira, bozketen emaitza eta egiteko modua ere azalduz (publikoa ala sekretua, boto-txartelekin ala eskua jasozkoa).

Azkenik, eta garrantzitsuena, hartutako akordioen edukia azalduko da.

Bestalde, gure botoaren azalpena aktan agertzea eska dezakegu, baita gure interbentzioak osorik transkribatzea eta boto partikularrak ematea gehiengoarekin ados ez gaudenean ere (Administrazioari jakinarazi behar zaizkion gaietan adibidez).

Aktek idazkari eta presidentearen sinadura eraman behar dute. Eskola Kontseiluko kide guztiek eskuragarri izango dituzte. Hartutako akordioen fotokopia ere eska daiteke, baina ez akta osoarena.

Akta guztiak Eskola Kontseiluan bertan ala ospatzen den hurrengo bilkuran onartuko dira.

Zenbat irauten du agintaldiak? Nola betetzen dira bakanteak?

Eskola Kontseilua osatzen duten pertsonak lau urterako hautatuak dira. Bi urtean behin elkargokide ordezkarien erdia berriztatzen da. Horretarako dagokion hauteskunde prozesua burutzen da.

Dagokien berriztatze prozesua baino lehen Eskola Kontseilu kide izateko baldintzak betetzen ez dituzten ordezkarien kasuan, hauek kargua utziko dute eta hautagai zerrendako hurrengoek beteko dute, beti ere izandako boto kopurua kontuan hartuz.

Utzitako lekua betetzeko hautagai gehiagorik ez balego, hura hutsik geldituko litzateke Eskola Kontseiluaren hurrengo berriztatze partziala eman arte. Horregatik, komenigarria da IGE - Guraso Elkarteek hautagai zerrendak prestatzerakoan bete beharreko lekuak baino hautagai gehiago aurkeztea.

Gainera AJA - Antolaketa eta Jarduera Araudian suertatutako hutsuneak betetzeko prozedura zein den zehaztu daiteke.

Zerrendako hurrengo hautagaiek beteko dituzte bakanteak lortutako boto kopuruaren arabera.

IGEak izendaturiko ordezkariak kargua utziz gero bere agintaldia amaitu baino lehen, IGEak ordezkari bat izendatuko du. Bi hilabeteko epean izendapenik egin ezean, honako honek beteko du postu huts hori: egindako azken hauteskundeari dagokion guraso-ordezkariaren ordezkoen zerrendako lehenak.

Guraso Elkarte Eskola Kontseiluan



Guraso Elkarteak zuzenean pertsona ordezkari bat izenda dezake Eskola Kontseiluaren berezko kide legez, hauteskunde prozesutik pasatu gabe, hitz eta botoarekin.

Komenigarria da Eskola Kontseilua osatzen duten gurasoen artean euren ekimenen arteko koordinazioa eman dadin.

Beharrezkoa den guztietan Eskola Kontseiluaren aurretik bilera bat ospatuko dugu Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordearekin, non elkartearentzat ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko garrantzitsuak diren aspektu, iradokizun eta proiektuak planteatuko diren.

Komeniko litzateke elkarte eta Eskola Kontseilua koordinatzeko pertsona bat aukeratzea. Irizpide bat Guraso Elkartek Eskola Kontseiluan zuzenean ezarritako ordezkariak funtzio hau betetzea izan daiteke.

Eskola Kontseiluan gurasoen ordezkariak gai kolektiboak zein maila indibidualekoak aurkeztuko dituzte ikastetxeko familia guztien ordezkariak euren gain hartzen dutelako, baina inolaz ere ez dira interes propioak sustatuko.

Guraso Elkartek, beharrezkoa balitz, ikastetxearen funtzionamendu egokian eragiten duten aspektuen gaineko informazioa emango du. Era berean edozein gai aipagarriren inguruko informazio txostenak prestatu ahal izango ditu, adibidez, instalazioen berrikuntza, ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak, eta abar.

■ Laburbilduz.....

OOG - Ordezkariak Organo Gorena edo Eskola Kontseilua familiek haien seme-alaben hezkuntzan parte hartu eta inplikatzeko lekua da. Funtzionamendu egokia izan dezan zera betetzen den kontuan hartu behar da:

- gai zerrendan jorratu beharreko gai guztiak sartu diren.
- bilerako gai zerrenda denbora nahikoarekin ezagutzen den.
- beharrezkoa den dokumentazioa denbora nahikoarekin jasotzen den.
- partaide gehienek parte hartzea errazten duen orduan deitzen den.
- sektore guztiak bilera prestatu duten.
- proposamen guztiak entzun eta baloratzen diren.
- kontsentsura heltzeko elkarrizketa erabiltzen den.
- jarrerak beste kolektiboekin negoziatzen diren.
- akordioak praktikara eramateko, sektore guztiak parte hartuz, batzordeak sortzen diren.
- emaitzak ebaluatzen diren.
- kide guztiak kolektiboaren ordezkari sentitzen diren.
- eskola elkarte osoak akordioak ezagutzeko mekanismoak sortzen diren.



Legeria

258/1996 Dekretua, Azaroaren 12koa Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua. (EHAA 1996-11-15)

11/2007 Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautu duen Dekretua aldatzen duena. (EHAA 2007-02-05)

Agindua, 2010eko irailaren 1ekoa, herri-ikastetxeetan ordezkaritza-organo gorenetao kide batzuk, egokitzen direnak, aukeratzeko hauteskunde-prozesua zabaltzen duena. (EHAA 2010-10-08)

228/2010 Dekretua, irailaren 7koa, ikastetxe publikoetako ordezkaritza-organo gorenetao guraso eta ikasleen partaidetzarako gutxieneko ehunekoak zehazten duena. (EHAA 2010-09-27)

2010eko irailaren 20ko Erabakia, Antolamendu eta Jarduera-Araudia onarturik ez duten ikastetxe publikoetako OOGaren osaera ezartzen duena.

Ikasleen eskubideak eta betebeharrak- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrari buruzkoa (EHAA 08-12-16)

- Dekretua aplikatzeko gida

AJA, Antolamendua eta Jarduera Araudia: ereduak

➤ Araudi hau Hezkuntza Sailaren web gunean kontsultatu dezakezue: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43573/eu/contenidos/informacion/dic1/eu_2041/c1_e.html



ERANSKINAK

Hainbat erantzun ohiko zalantzetarako

— *Erabakirik garrantzitsuenak irakasleen klaustroan hartzen dira soilik?*

Ez. Ikastetxe baten aspekturik garrantzitsuenen gaineko erabakiak OOG - Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseiluari hartzea dagokio. Horregatik garrantzitsua da familiar irakaskuntzan inplikatzera, parte hartzea eta umeen heziketa hobetzeko baliagarriak izango diren kontsensuzko proposamenak aurkeztea.

— *¿Eskola Kontseiluak batzorde bi baino ez du eduki behar?*

Ez, beharrezko ikusten diren guztiak sor daitezke. Hainbat motatako batzordeak eratzea gomendagarria da: elkarbizitza, segurtasun eta higiena, jantokia, hizkuntz normalizazioa,...

— *¿Zer jaso behar du Eskola Kontseiluko aktak?*

Bilkura bakoitzean akta bat egingo da, bertan agertutakoen izenak azalduko dira eta bilera egin deneko lekua eta iraupena. Horrekin batera eztabaidagai nagusiak, bozketen modua eta emaitzak eta akordio-
en edukiak azalduko dira.

— *¿Boto partikularrik eman al daiteke? Non agertu behar da?*

Eskola Kontseilua osatzen duen edonork hartzen den akordioaren gaineko bere botoaren azalpena eta justifikatzen duen arrazoa aktan azaltzea eska dezake.

— *Zer da boto haztatua?*

Zera esan nahi du boto haztatua: batzordeetan parte hartzen dutenen botoek OOGan duten balio berbera izango dutela. Boto haztatuarekin funtzionatzen dute batzorde guztiek.

— *¿Presidentzia ezin bada etorri, zeinek beteko du bere lekua?*

Presidenteak edo idazkariak ezin badute agertu kargurik zaharrenarekin eta kargurik berrienarekin ordeztuko dira hurrenez hurren. Kide guztiek antzinakotasun berbera badute adinez zaharrena eta gazteena hartuko dira.

— *¿Eta quorumik ez badago?*

Quoruma egon dadin presidentea eta idazkaria, edo hauen ordezkariak, eta Eskola Kontseilua osatzen duten pertsonen erdia egon behar dira. Quoruma ez bada ematen, Eskola Kontseilua bigarren deialdian eratuko da lehenengo deialditik 24 ordu beranduago. Honen kasuan nahikoa izango da kideen heren baten presentziarekin, beti ere gutxienez hiru izanik.



— *¿Bozketa batean berdinketa ematekotan zeinek erabakitzen du?*

Berdinketa kasuan Eskola Kontseiluko presidentziaren botoak erabakitzen du.

— *¿Zer gertatzen da familiak gutxiengoa badira?*

Erabakiak berdin berdin har daitezke nahiz eta gurasoek ordezkaritzarik ez izan.

— *¿Ikastetxeko plana eta memoria derrigorrez onartu behar dira?*

Bai, horrela da, ikastetxe orok izan behar du bere plana eta memoria. Ados ez egotekotan ez dago zertan ospatzen den lehenengoko Eskola Kontseiluan onartu beharrik.

— *¿Batzordeek erabakirik hartu ahal dute?*

Euren funtzioak oso argi deskribaturik egon behar dute Eskola Kontseiluak ez baitira erabakitzailleak, Eskola Kontseiluak ezarritako funtzioak soilik beteko dituzte.

— *Etenaldirik eska al daiteke ideiak argitu edota gurasoen arteko erabaki bateratua adosteko?*

Bai horixe. Edozein unetan zalantzarik sortzen bada edo ideia bat argitu behar bada edozein estamentuk etenaldi bat eska dezake.

— *Nola onartuko ditugu ikastetxeko plana eta memoria ezagutzen ez baditugu?*

Zuzendariak eztabaidarako beharrezkoa den dokumentazioa bidaliko die Eskola Kontseiluko kide guztiei hauek gutxienez aste bateko aurrerapenaz eskuetan izan dezaten.

— *Nola egin proposamenak Eskola Kontseiluan?*

Batzorde iraunkorraren bidez edo OOGaren Presidentziara bidaliz –zuzendaria-, gai-zerrendan sartu dezan.

— *Eskola Kontseiluan gai pertsonalak aurkez daitezke?*

Eskola kontseiluak ez daude gurasoen ordezkariek gai pertsonalak aurkez ditzaten, interes kolektiboak zein maila indibidualakoak defendatu eta ikastetxeko familia guztien ordezkariek izateko baizik.

— *Derrigorrezkoa al da Eskola Kontseiluaren batzarretara joatea?*

Bai. Derrigorrezkoa da Eskola Kontseiluaren batzarretara joatea eta ez etortzea justifikatuta ez dagoenean zigorra jar dezake Presidentziak, kontseilari kondizioa kenduz.

— *Eskola orduetan ospatu behar al dira Eskola Kontseiluaren batzarrok?*

Ez, Eskola Kontseiluko partaide guztiak bertaratu daitezkeen ordutegian ospatu behar dira batzarrok.

— *Eskola Kontseiluaren akordioen kontra egin al daiteke?*

Bai, Legearen, Eskola Kontseiluaren edo hezkuntzaren kontrakoak direnean edo Eskola Kontseiluaren kideen zein hauek ordezkatzen dituztenen interesak edo eskubideak lesionatzen dituzten kasuetan. Eskola Kontseiluko kideek ezin dute bertan hartutako erabakien kontra egin.*

*. Organu kolegiatu honen kideek euren erantzukizuna salbatu dezakete kontrako botoa edo abstentzioa jasota geratu dadila eskatuz.

— *Postaz bozkatu al daiteke?*

Ez, kontraesana litzateke batzarretara joateko derrigortasunarekiko.

— *Nola hartzen dira erabakiak?*

Botazioz:

- Gehiengo soila: Botazioaren momentuan daudenen erdia gehi bat, gutxienez.
- Gehiengo osoa: Eskola Kontseilua legez osatzen duten guztien erdia gehi bat, gutxienez.
- Gehiengo gaitua: Portzentai zehatza eskatzen du.

— *Zein desberdintasun dago ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen artean?*

Ekintza osagarriak eskola-orduetan egiten dira ikasleekin, ikastetxeak antolatzen ditu eta derrigorrezkoak dira ikasle guztientzako: gelatik kanpo egiten diren ekintzak, barnetegiak, hezkuntza-ekintza bereziak...

Eskolaz kanpoko ekintzak ez daude erlazionatuta curriculumarekin, eskolaz kanpoko orduetan egiten dira eta parte hartzea borondatezkoa da.

■ Ohiko terminoen glosategia

OOG- Ordezkaritza Organo Gorena, edo Eskola Kontseilua ere deituta.

IHP - Ikastetxearen Heziketa-Proiektua, ikastetxeak izan nahi duena eta lortu nahi duena finkatzean datza. Hartan baloreak, jarrerak, ohiturak, ezaguerak eta trebeziak zein garatu nahi diren prozedura didaktikoak azaltzen dira. Horrekin batera ebaluazio arauak, gelen antolaketa, ikasleentzako orientazio pertsonala (tutoretzak), familiekin egiten diren bilerak eta abar ere zehazten dira.

IIP - Ikastetxearen Ikasketa Proiektua. Irakatsi eta ikasteko jarduera prozesuan ziklo bakoitzerako estrategia didaktiko gokiek zehazten ditu.

AJA- Antolaketa eta Jarduera Araudia. Ikastetxearen funtzionamendua gidatuko duten arauak eta izango ditugun baliabideak erregulatzen ditu. Ikastetxe guztiek izan behar dute AJA.

Ikastetxeko Plana. Jarduera hezitzaile guztiaren urteko planifikazioa da. Era berean ikastetxearen funtzionamendua gidatuko dituzten arauak erregulatzen ditu, ikastetxeak lortu nahi dituen helburuak zehaztuz. Bestalde pertsonak, erantzukizunak, egutegia, bilerak eta abar ezartzen ditu.

Ikastetxeko Memoria. Dokumentu honetan ikasturte bateko jarduera guztiaren datu eta emaitzak jasotzen dira eta epealdi horretan burututako ekintza guztiak azaltzen dira.